

***Ebaluazio lan honetan lehenengo plangintzaldia-
ren (1990-1995) azterketa
egin da. Bertan, hizkuntz
normalizazioaren
hainbat alderdi jorratu
dira, hala nola, planean
murgildutako erakunde
eta langile publikoak,
langile publikoen euskal-
duntzea edota hizkuntz
eskakizunen egiaztatzea.
Dena den, garrantzi be-
rezia eman zaio plangin-
tzaren betetze-mailari.
Orainartekoa, lehen
urratsa da normalizazio
prozesuan. Plangintza
honen helburua herrita-
rren hizkuntz eskubideak
errespetatzea da, eta ho-
rretarako, erabilera pro-
gramak indartu behar
dira. Hori da, hain zuzen
ere hurrengo urteotako
eginkizunik garrantzi-
tsuena, eta eginbehar ho-
netara bideratu behar di-
tugu gure baliabide eta
ahaleginak.***

EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALKUNTZA PROZESUAREN EBALUAZIOA EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOETAN

Jokin Azkue Arrastoa
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Oharra: Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeari aurkeztutako 1995eko iraila-
ren 5ean. Berau izan da oinarri dokumentu hau egiterakoan.

I. SARRERA

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin, Euskararen Erabilpe-
na Arauzkotzekoarekin eman zitzaion hasiera Euskal Herri Adminis-
trazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuari.

Lege honen xedea administrazioetan euskararen erabilera normaliza-
tzearena baino zabalagoa da, herritarrak Administrazioarekiko harre-
manetan dituen zenbait hizkuntz eskubide jasotzen baititu eta botere
publikoek beren ihardunbidean euskararen erabilerrari buruz dituzten
betebeharrak ere aipatzen baititu. Lege honek aipatutako plangintza
arautzeko lanak hasi ahal izateko oinarriak finkatu zituen.

10/1982 Legea Konstituzio Auzitegiaren aurrean errekurritu zuten
baina egoera Konstituzio Auzitegiak ekainaren 26ko 82/1986 Epaia

eman zuenean aldatu zen, Epaia Euskal Autonomi Elkartetik defendatutako ia tesi guztien eta Legebiltzarrak onartutako Legean jasotzen diren xedapenetan islatzen zirenen aldekoa izan baitzen.

1982-1986 urteen artean Herri Administrazioek jasan behar izan zuten egoerak 10/1982 Legea garatzea eskatzen zuen. Horretara etorri zen Euskal Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan euskararen erabilera eta normalizazioari buruzko azaroaren 25eko 250/1986 Dekretua. Hau Herri Administrazioek bete beharrekoak zehazten hasi zen eta hizkuntz eskakizunen sorrera ekarri zuen.

Dekretu hau martxan jarri ahal izateko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Herri Administrazioetako lanpostuen azterketa egiten hasi zen 1987an, helburua lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta administrazio bakoitzaren hizkuntz egoera zehaztea zen. Era berean, lantalde bat osatu zen Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren artean eta *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintzarako oinarriak* izeneko dokumentua egin zen.

1989ko maiatzaren 17an Eusko Legebiltzarreko Iraskundeak eta Herri-zaingoa Sailak Erabaki bat onartu zuen, aipatutako idatzia berresten zuena eta Herri Administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntza-planak jarraitu beharreko oinarriak barne hartzen zituen.

1989ko uztailaren 6an Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea onartu zen. Lege honek 10/1982 Legean, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoan, hautaketa-prozesuetan eta lanpostuak betetzekoetan euskara meritu gisa hartzeari buruz egiten ziren aurrikuspenak zehazten ditu, baita Herri Administrazioek euskara lanpostuari lotutako betekizun gisa har dezaten jarraitu beharreko bideak eta bete beharreko baldintzak ere.

1989ko urriaren 17an Eusko Jaurlaritzak 224/1989 Dekretua onartu zuen, Euskal Funtzio Publikoaren Legea garatzen zuena. Dekretuak Euskal Herri Administrazioetako Hizkuntz Normalkuntzarako Plangintza bezala ezagutzen denaren oinarriak zehaztu eta benetako Administrazio elebiduna lortzeko oinarriak finkatu zituen.

Euskal Herri Administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren arauak, kontuan hartuta esparru horretatik kanpora gelditzen direla Hezkuntza, Osasun-arloa eta Ertzaintza, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoak, uztai-

1) Abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretua aldatzen duen otsailaren 15eko 98/1994 Dekretuaren arabera plangintzan sartzen diren langileak. 89/1994 Dekretuak zuzendu egin zuen 1993ko Dekretuan langile hauek ez aipatzea.

**«10/1982 Legea
Konstituzio
Auzitegiaren aurrean
errekurritu zuten baina
egoera Konstituzio
Auzitegiak ekainaren
26ko 82/1986 Epaia
eman zuenean aldatu
zen, Epaia Euskal
Autonomi Elkartetik
defendatutako ia tesi
guztien eta
Legebiltzarrak
onartutako Legean
jasotzen diren
xedapenetan islatzen
zirenen aldekoa izan
baitzen»**

laren 6ko Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak eta jarraian aipatzen diren Dekretuek arautzen dituzte:

- 250/1986 Dekretuak, azaroaren 25ekoak.
- 224/1989 Dekretuak, urriaren 17koak.
- 264/1990 Dekretuak, urriaren 9koak.
- 238/1993 Dekretuak, abuztuaren 3koak, 89/1994 Dekretuak, otsailaren 15ekoak aldatua.

Abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuak Euskal Herri Administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren ezarpenerako zenbait neurri jasotzen ditu. Dekretu honen xedea 1989ko Dekretuan hartutako neurrien osagarri izatea eta administrazioei plangintzaren inplementazioan izan zituzten arazo praktikoei irtenbide bat ematea zen.

Abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuaren ondorioz, Herri Administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntza-prozesua arautzen duten arauen ezarpen-eremua uztaillaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak aurrikusitakora egokitu zen. Horrela, jarraian aipatzen diren administrazioak ezarpen-eremu horretan sartu ziren:

- a) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- b) Lan Harremanen Kontseilua.
- c) Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak.
- d) Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileak¹.

Bestalde, Dekretuaren Bosgarren Xedapen Gehigarriak Herri Administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntza-prozesurako arauak Legebiltzarreko eta Arartekoaren menpeko langileei ere ezartzea aurrikusten du Legebiltzarreko Mahaiaik aurrez onartu eta, hala badagokio, egokitu ondoren.

238/1993 Dekretuak aldibaterako salbuespenetarako arauak jasotzen ditu. Horien arabera luzatu egiten da lanpostu bati dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko epea, derrigortasun-datatik aurrera langileak hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko ahaleginak egin eta bere lanpostuari dagokiona baino beheragoko hizkuntz eskakizunen bat egiaztatatu duenean.

Urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren 26. atalean aurrikusten diren salbuespen-arrazoiei OHO edo Oinarrizko Batxilergoa lortu ez duten pertsonen dagokiena gehitzen zaie 238/1993 Dekretuan, alde batera

utzita zuzenbide-antolamenduak beste helburuetarako eskola-egiaztagiriari dagokionez onartzen dituen baliokidetzak eta baliozkotzeak.

Horrez gain, HAEEn barruan egiaztatutako hizkuntz eskakizunen erregistro bakar bat sortuko dela erabakitzen du eta hizkuntz eskakizunaren egiaztapena unibertuala izango dela, hau da, administrazio guztietan baliagarria eta denbora-mugarik gabea.

2) Txostenaren laburpena denez, garrantzi gehien duten atalak garatu dira, beste guztia txosten originalean garatzen da.

II. EBALUAZIO TXOSTENAREN ILDO NAGUSIAK

1.- *Euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren ebaluazioa Euskal Herri Administrazioetan* izenaz Hizkuntza Politikarako Sailordetzak 1995eko uztailaren 31ko dataz egindako ebaluazio-txostenaren izaera eta zergatia:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren ebaluazio-txostena Euskal Herri Administrazioen hizkuntz normalkuntzarako prozesuaren azterketa eta jarraipena egiteko bide bat da, Euskal Autonomi Elkarteko Herri Administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntzarako plangintza arautzen duen urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren 10.1 atalean aurikusten dena. Atal honek Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak gutxienez bi urtetik behin Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari txosten bat aurkeztuko diola aurikusten du, bertan herri-administrazio bakoitzari hizkuntz normalkuntza-bidean ezarri zaizkion helburuen betetze-mailaren ebaluazioa egingo da.

2.-Txostenaren edukia eta egitura:

Plangintzaldiaren lehenengo bi urteei zegokien txostenean ereduaren berritasuna zela eta prozesuaren aurreko guztiak zehatz-mehatz azaldu zirenez eta ereduaren funtzionamenduari ere tarte handi bat eskaini zitzaionez, *Euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren ebaluazioa Euskal Herri Administrazioetan* izenburua duen txostena plangintzaren betetze-mailaren ebaluazioari lotzen zaio.

Ebaluazio-txosten honek plangintzaldi osoa hartzen du, zenbait langile publikok egokitu zaizkien aldibaterako salbuespenak direla eta, dagokien hizkuntz eskakizuna datorren plangintzaldian egiaztatuko dutenarren.

Egiturari dagokionez, jarraian aipatzen direnak jasotzen dira ebaluazio-txostenean²: 238/1993 Dekretuan, abuztuaren 3koan jasotako al-

**«1989ko uztailaren 6an
Funtzio Publikoaren
6/1989 Legea onartu
zen. Lege honek 10/1982
Legean, Euskararen
Erabilpena
Arauzkotzekoan,
hautaketa-prozesuetan
eta lanpostuak
betetzekoetan euskara
meritu gisa hartzeari
buruz egiten ziren
aurrikuspenak zehazten
ditu, baita Herri
Administrazioek
euskara lanpostuari
lotutako betekizun gisa
har dezaten jarraitu
beharreko bideak»**

daketak, Dekretuan jasotzen diren iharduteko mandatuen betetze-maila, eta Hezkuntza, Osasun-arloaren eta Ertzaintzaren egoera. Era berean, jarraian aipatzen direnei buruzko datu zehatzak ere jasotzen dira: plangintzan murgilduta dauden erakunde eta langile publikoen kopuruari buruzkoak, hizkuntz eskakizunen eta derrigortasun-daten banaketari buruzkoak, hizkuntz eskakizunak egiaztatu duten langile publikoei buruzkoak, administrazioen betetze-mailari buruzkoak hizkuntz eskakizunak egiaztatzeari dagokionez eta plangintzan murgilduta dauden langile publikoen euskalduntzeari buruzkoak. Era berean, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data ezarrita duten langileek plangintzaren hainbat alderdiri buruz emandako irizkiak ere jasotzen dira.

Bestalde, argitu beharra dago zergatik batzuetan Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaz hitz egiten den eta beste batzuetan, ordea, Hizkuntza Politikarako Sailordetzaz. Arrazoia Kultura Sailaren egitura organikoa finkatzen duen maiatzaren 30eko 281/1995 Dekretuan aurkituko dugu. Dekretu honen ondorioz, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia desagertu eta Hizkuntza Politikarako Sailordetza sortzen da haren egiteko eta ahalmenekin. Horrez gain, Kultura Sailaren Euskararen Sustapenerako Zuzendaritza Sailordetza horren barruan kokatzen da Dekretu horren ondorioz.

Kontuan hartuta plangintzaldia bukatzeaz zegoela gertatu zela aldaketa hori —Dekretua ekainaren 22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen— lehenengo plangintzaldian garatutakoak azaltzerakoan Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia aipatzen da eta etorkizunean garatu beharrekoak azaltzerakoan Hizkuntza Politikarako Sailordetza.

III. PLANGINTZAN MURGILDUTAKO ERAKUNDE ETA LANGILE PUBLIKOAK

Plangintzaren ezarpen-eremuaren barruan dauden herri-administrazio guztien onarpena beharrezkoa da plangintzaren ezarpena eraginkorra izan dadin. Plangintzaren onarpena administrazio bakoitzaren lanpostuei hizkuntz eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak ezarri gauzatzen da. Hori guztia plangintza arautzen duen araudian zehaztutako irizpideei eta jarraitu beharreko prozedura jarraituz egin beharko da.

Hizkuntz eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak ze-


hazteak administrazio bakoitzak plangintzari eta administrazio horretako lanpostu-zerrendei jarraituz lortu beharreko helburuak erdieste-ko neurri egokiak hartzea eskatzen du.

Hizkuntz Normalkuntzarako Plana ondoren aipatzen diren erakundeetan ezarri da: Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrean eta honen menpe dauden Erakunde Autonomoetan, Herri Kontuen Euskal Epaitegian, Lan Harremanen Kontseiluan, Foru Administrazioetan eta hauen Erakunde Autonomoetan, Lurralde Historikoen Batzar Nagusietan, Eusko Legebiltzarrean, Euskal Herriko Unibertsitatean administrazio eta zerbitzueta-ko langileei dagokienez, eta Autonomi Elkarteko Udal gehienetan.

Ondoren aurkezten den grafikoan plangintzak Euskal Herri Administrazioetako zenbat lanposturi eragiten dien azaltzen da.

«1989ko urriaren 17an Eusko Jaurlaritzak 224/1989 Dekretua onartu zuen, Euskal Funtzio Publikoaren Legea garatzen zuena. Dekretuak Euskal Herri Administrazioetako Hizkuntz Normalkuntzarako Plangintza bezala ezagutzen denaren oinarriak zehaztu eta benetako Administrazio elebiduna lortzeko oinarriak finkatu zituen»

PLANGINTZAREN EGOERA E.A.E.ko HERRI ADMINISTRAZIOETAN LANPOSTU KOPURUAREN ARABERA



**«238/1993 Dekretuak
aldibaterako
salbuespenetarako
arauak jasotzen ditu.
Horien arabera luzatu
egiten da lanpostu bati
dagokion hizkuntz
eskakizuna
egiaztatzeko epea»**

Horrela, Herri Administrazioetako langileei dagokienez, langile guztien %95'75a diren 26.234 langile daude plangintzan murgilduta.

IV. LANGILE PUBLIKOEN EUSKALDUNTZEA

Indarrean dagoen Euskal Herri Administrazioen Hizkuntz Normalkuntzarako Plana administrazio bakoitzaren errealitate soziolinguistikoari egokitutako helburuak apurka-apurka lortzera zuzenduta dago.

Autonomi Estatutuan aipatzen den hizkuntzen ofizialkidetasuna lortu ahal izateko, Administrazioak neurriak hartu behar ditu euskaldundu nahi duten langile publikoak euskaldun daitezen, Administrazio erabat elebiduna lortzea epe luzeago baterako helburua bada ere.

Egia da, bestalde, aurrekontuek helburu publiko eta politika guztiak mugatzen dituztela.

Kontuan izanda, HAEEk Administrazioako langileak euskalduntzeko dituen errekurtsoak mugatuak direla, langile publikoen artean lehenetsun-mailak ezarri dira gaikuntza-ikastaroei dagokienean.

HAEEren zuzendariaren 1992ko urriaren 5eko Erabakiaren Bigarren Xedapen Gehigarrian jasotzen diren HAEEren eta administrazioen artean sinatutako Hitzarmenen eta Euskal Autonomi Elkarte Administrazioaren eta honen Erakunde Autonomoen zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen baldintzak arautzen dituen indarrean dagoen Erabakian eta XII. EUFALEBAN (Euskadiko Foru Administrazioaren zerbitzupeko langileria enplegu-baldintzen akordio araupetzaila) azaltzen denaren arabera, lehenetsuna dute gaikuntza-ikastaroetara joateko lehenengo plan honetan derrigortasun-data ezarrita duten langileek.

Hala eta guztiz ere, asko dira hizkuntz eskakizunik egiaztatzeko beharrik izan gabe euskalduntze-prozesuan sartuta dauden langileak.

Planean sartuta ez dauden administrazioei dagokienez, azpimarratu behar da hori ez dela eragozpena langileen euskalduntzea sustatzeko.

Horregatik, ikasleen kopuruari dagokion zutabearen planean murgilduta dauden administrazioetan lan egiten duten langileez gain, planaren araudiaren ezarpen-eremuan sartuta ez dauden administrazioetako

langileak edo ezarpen-eremuaren barruan egonda ere artean normalkuntza-planik onartu ez duten administrazioetako langileak ere sartu ditugu.

Jarraian aurkezten den laukian nabarmen geratzen da asko direla planean sartu gabe dauden administrazioetako langileak euskalduntze-ikastaroetara joaten diren langileen artean.

Ikasturtea	Ikasle kopurua	Plangintzan sartutakoak	Derrigortasun datarik gabe ¹		Derrigortasun datarekin	
90-91	3.590	2.115	901	(%42,60)	1.214	(%57,40)
91-92	4.482	2.936	1.215	(%41,39)	1.721	(%58,61)
92-93	3.870	2.764	921	(%33,33)	1.843	(%66,68)
93-94	3.943	2.786	931	(33,42%)	1.855	(%66,59)
94-95 ²	3.528	2.577	1.015	(%39,39)	1.562	(%60,62)

1- Azaldutako ehunekoak «plangintzan sartutakoak» atalean dauden arabera egin dira.

2- Ikasturte honetan ez daude jasota azken hiruhilabeteko datuak.

V. HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN EGIAZTATZEA

HAEEn Erregistroan egiazta daitezke lortutako hizkuntz eskakizunak. Erregistro horretan hizkuntz eskakizunen frogetan egiaztatutako hizkuntz eskakizunak, EGA agiriak eta 3. hizkuntz eskakizunaren baliokideak direnak ere jasotzen dira.

Hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko frogei dagokienez, bereizi egin behar dira hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko helburu hutsarekin antolatutakoak eta hautaketa-prozesuetan edota lanpostuak betetzekoetan egindakoak.

Hizkuntz eskakizunak egiaztatu ahal izateko helburu hutsarekin antolatutako frogetara aurkez daitezkeen langileei dagokienez, zehaztu egin behar da langile horiek plangintzaren araudiaren ezarpen-eremuaren barruko herri-administrazioetako karrerako funtzionarien eta lan-kontratuko langile finkoen taldera mugatzen direla. Hau da, bitarteko funtzionariak, lan-kontratuko aldibaterako langileak, behin-behinekoak eta plangintzaren araudiaren ezarpen-eremuaren barruan sartuta ez dauden beste administrazioen menpe dauden langileak ezin dira froga horietara aurkeztu.

«Plangintzaren ezarpen-eremuaren barruan dauden herri-administrazio guztien onarpena beharrezkoa da plangintzaren ezarpena eraginkorra izan dadin»

Hala eta guztiz ere, abuztuaren 3ko 238/1993ko Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarrian xedatzen denaren arabera, bidezkoa da karrerako funtzionario nahiz lan-kontratuko langile finko izateko hautaketa-prozesuetan egoera horretara iritsi ez, baina hizkuntz eskakizunen bat egiaztatzea iritsi direnei hizkuntz eskakizun hori betiko egiaztatzea 4. hizkuntz eskakizunaren kasuan eta, aldi batez gainontzeko kasuetan (urtebetez, egiaztatutako hizkuntz eskakizuna 1.a edo 2.a denean, eta bi urtez 3.aren kasuan).

Dena den, alde batera utziko ditugu era horretan egiaztatutako hizkuntz eskakizunak plana betetzearekin zerikusirik ez duten neurrian.

Azpimarratuko ditugu, aldiz, derrigortasun-datarik ez duten lanpostuak betetzen dituzten langileek egiaztatu dituzten hizkuntz eskakizunen kopurua, datozen plangintzaldietan bete nahi izango diren helburuei begira emandako urratsen adierazgarri diren neurrian.

Jarraian aipatzen den taulan egiaztatutako hizkuntz eskakizunen berri ematen da.


HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN BAT EGIAZTATU DUTEN LANGILE PUBLIKOAK
(Hizkuntz eskakizunik altuena hartu da kontuan)

EUSKAL	FORU ALDUNDIAK	376	863	468	39	12	1.758
AUTONOMI	UDALAK	725	1.411	1.000	161	211	3.508
ELKARTEA	ADMINIST. OROKORRA	443	831	503	98	153	2.028
	GUZTIRA	1.544	3.105	1.971	298	376	7.294


VI. PLANAREN BETETZE-MAILA: PLANEAN MURGILDUTA DAUDEN EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO HERRI-ADMINISTRATIOAK GUZTIRA

Euskal Herri Administrazioetan 26.234 dira planean murgilduta dauden lanpostuak. Lanpostu horietatik 8.915ek dute derrigortasun-data ezarrita.

E.A.E.ko HERRI ADMINISTRAZIOAK HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN DERRIGORTASUNAK



E.A.E.ko HERRI ADMINISTRAZIOAK DERRIGORTASUN DATAK URTEKA



**«Indarrean dagoen
Euskal Herri
Administrazioen
Hizkuntz
Normalkuntzarako
Plana administrazio
bakoitzaren errealitate
soziolinguistikoari
egokitutako helburuak
apurka-apurka lortzera
zuzenduta dago»**

Teknikari gaituei dagozkien hizkuntz eskakizunak 265 dira Autonomi Elkarre osoan, kasu hauetan ez da beharrezkoa planaren betetze-maila aztertzea, lanpostu hauetan hizkuntz eskakizunari dagokion euskararen ezagutza-maila lanpostua betetzeko garaian frogatu behar baita, hau da, hautaketa-frogan bertan.


Derrigortasun-data ezarrita duten lanpostuetatik 3.829 langilek, hau da, %42'95ek egiaztatu dute dagokien hizkuntz eskakizuna. 1.872 dira bete gabe dauden lanpostuak (%21a). Adinagatik salbuetsita daudenak 1.083 langile dira, %12'15a alegia.

Bestalde, kontuan izan behar da 864 direla dagokien hizkuntz eskakizuna baino bat beheragokoa egiaztatzen duten langileak, 207 dagokiena baino bi beheragokoa eta 35 langile dagokiena baino hiru beheragokoa. Ondorioz, % 12'40 izango da aldibaterako salbuespena izango duena. Beraz, planaren betetze-maila %88'50koa dela esan genezake.

Lanpostu-kopurua kontuan hartu beharrean langile publikoak aztertuko bagenitu (lanpostu hutsak eta adinagatik salbuetsitakoak kenduta), gutxi gora behera 6tik 4k egiaztatu dute zegokien hizkuntz eskakizuna, beste batek hizkuntz eskakizunen bat egiaztatu du eta luzapenak ditu, eta beste batek ez du inolako hizkuntz eskakizunik egiaztatu.

Horrez gain, esan beharra dago derrigortasun-datarik ezarrita ez duten 1.785 langilek egiaztatu dutela zegokien hizkuntz eskakizuna. Bestalde, gerta liteke derrigortasun-datarik ezarrita ez duten eta hizkuntz eskakizunei dagokien ezagutza-maila gainditzen duten langileak egotea eta egiaztatze-frogetara aurkeztu ez izatea.

PLANAREN BETETZE MAILA EAEko HERRI ADMINISTRAZIOETAN
DERRIGORTASUN DATA DUTEN LANPOSTUAK GUZTIRA



VII. ONDORIOAK ETA GERORAKO IRIZPIDEAK

Txostenean agertzen diren datuetatik eta bertan egin den lehenengo plangintzaldiaren esperientziaren azterketatik ondoren aipatzen diren ondorio nagusiak atera daitezke:

1.- Euskal Herri Administrazioen hizkuntza normalkuntzarako planari buruzko arauak segurtasun juridikoa eman diote planari eta Funtzio Publikoan euskara eskatzea eta baloratzea objektibatu eta arrazionalizatu egin dute gai honen inguruko garai bateko auzia saihestuz.

Hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun-indizea, herri-administrazioetan euskararen erabileraren normalkuntza-planaren zutabeak izan direnak, oso tresna egoki eta eraginkorrak izan dira, gure iritziz, planaren inplementazioan.

Hizkuntza eskakizunak ereduaren arrazionaltasuna eta objektibitatea bermatzen dituzte, baita segurtasun juridikoa ere, derrigortasun-indi-

«Azpimarratuko ditugu, aldiz, derrigortasun-datarik ez duten lanpostuak betetzen dituzten langileek egiaztatu dituzten hizkuntz eskakizunen kopurua, datozen plangintzaldietan bete nahi izango diren helburuei begira emandako urratsen adierazgarri diren neurrian»

zeak planaren betebeharrak une historiko bakoitzari eta Euskal Autonomi Elkartearen aniztasun soziolinguistikoari egokitzea bermatzen duen bitartean.

Planari buruzko arauak jarraian aipatzen diren ezaugarriak eman dizkiote planari:

a) Progresibitatea: Ez zaie langile publiko guztiei euskara jakitea eskatzen eta eskakizun hau planaren hasieratik nahiz planean zehar egin dakieke, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data ezarrita duten langileen prestakuntza ahalbidetu ahal izateko.

Administrazio bakoitzari dagokion derrigortasun-indizearen arabera, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data ezarrita izango duten lanpostuen kopurua mugatua izango da plangintzaldi bakoitzean.

b) Euskararen ezagutza mailakaturik lanpostuaren arabera. Lau hizkuntz eskakizun zehaztu dira eta eskatu edo baloratuko den euskararen ezagutza-maila lanpostuaren betebeharren arabera izango da Funtzio Publikoan sartzeari dagokionez, Konstituzioaren 103 artikulua ezartzen dituen meritu eta gaitasun printzipioekin bat etorriz.

d) Errealitate soziolinguistikoari egokitzea. Derrigortasun-indizeak planaren betebeharrak une historiko bakoitzari eta Autonomi Elkarteko aniztasun soziolinguistikoari egokitzea bermatzen du.

e) Euskara eta gaztelera zerbitzu-hizkuntza zein lan-hizkuntzat hartzea.

f) Herri Administrazioen autonomi printzipioari begirunea.

2.- Abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuan arautzen diren neurriak eraginkorrak izan dira.

Dekretu honek, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak plangintzaren lehenengo biurtekoari buruz egindako ebaluazio-txostena aztertu eta erkatzearen ondorioa denak, normalakuntza-planaren garapenean izandako gorabeherei modu onean aurre egin ahal izateko baliotzat hartzen du. Era berean, lagungarri izan da lehenengo plangintzaldien helburuen betetze-maila altua izan dadin, batez ere, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data ezarrita zutenei zenbait kasutan hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko epea luzatu zaielako. Horre-

la, ahalbidetu egin da ikasten saiatu diren langile publikoek lanpostuari zegokion hizkuntz eskakizuna betetzea.

Beraz, Dekretu horrek aurrikusten duen aldibaterako salbuespen-erregimenak bidea eman du lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzen ahalegindu diren langile publikoek hizkuntz gaikuntza-prozesuarekin jarrai dezaten hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko aurrikusitako epeak luzatzearen ondorioz.

3.-Txostenean aztertzen den normalkuntza-planaren arauen ezarpen-eremutik kanpo gelditzen diren Hezkuntza, Osasun-arloa eta Ertzaintzari dagokienez, euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuak izan duen garapena ez da hiru arlo horietan berdina izan.

Horrela, araututa daude dagoeneko Hezkuntza-arloan hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-datak zehazteko irizpideak Araubide Orokorreko Irakaskuntza ematen duten ikastetxeetako irakaspostuei dagokienez. Arautu gabe daude, ordea, Araubide Bereziko Irakaskuntzetako eta Helduen Hezkuntza Iraunkorreko irakaspostuak eta Hezkuntza Ikuskaritza Teknikorako Zerbitzuko lanpostuak eta Irakaskuntzaren Laguntzarako Zerbitzuetakoak.

Osasun-arloari dagokienez, aldiz, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen Hamabigarren Xedapen Gehigarriak aipatzen duen Eusko Legebiltzarraren Legea oraindik onartu ez denez, eta lanpostuak eta lanpostu-zerrendak zehazteko prozesua amaitu ez denez, arlo honetako hizkuntz normalkuntzarako plan zehatza hastapenetan aurkitzen da une honetan datuak biltzen ari direlarik.

Ertzaintzari dagokienez, uztailearen 17ko Euskal Herriko Poliziaren 4/1992 Legea onartuta gero, Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailak Legea indarrean jarri zenetik bost urteko epea du Azken Xedapenetatik Lehengoaren arabera Ertzaintzaren lanpostuak sailkatzeko eta bertako lanpostu-zerrendak onartzeko, azken hauetan hizkuntz eskakizunek eta, hala badagokio, derrigortasun-dateak azaldu beharko dutelarik. Gaur egun lehen urratsak ematen hasiak dira hori gauzatu ahal izateko.

Hau gertatu bitartean, Ertzaintzan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko deialdietan euskararen ezagutza meritu gisa baloratuko da. Horrez gain, Ertzaintzan sartu aurreko prestakuntza-ikastaroaren ikasketak planean euskara beste ikasgaien artean azaltzen da.

«Derrigortasun-data ezarrita duten lanpostuetatik 3.829 langilek, hau da, %42'95ek egiaztatu dute dagokien hizkuntz eskakizuna. 1.872 dira bete gabe dauden lanpostuak (%21a). Adinagatik salbuetsita daudenak 1.083 langile dira, %12'15a alegia»

«Bestalde, kontuan izan behar da 864 direla dagokien hizkuntz eskakizuna baino bat beheragokoa egiaztatzen duten langileak, 207 dagokiena baino bi beheragokoa eta 35 langile dagokiena baino hiru beheragokoa. Ondorioz, % 12'40 izango da aldibaterako salbuespena izango duena»

4.- Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrek beharrezkoak diren baliabideak jarri ditu plana eraginkorra izan dadin.

Plangintzaldia hasi zenetik, Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrek beharrezkoak izan diren baliabideak jarri ditu Hizkuntz Normalkuntzarako Planean murgilduta dauden Euskal Herri Administrazioek dagozkien helburuak lor ditzaten.

Nahiz eta horietako zenbait baliabide plana hasi aurretik eskaini ziren, jarraipena izan dute eta lagungarri izan dira planaren garapenean.

HAEE izan da atal honetan erantzukizun eta protagonismorik gehien izan duen erakundea, batez ere, langileak gaitzeari dagokionez.

5.- Planaren ezarpen-maila oso handia izan da Euskal Herri Administrazioetan euskararen erabilerraren normalkuntza-prozesuaren arauen ezarpen-eremuan sartuta dauden administrazioei dagozkien lanpostuen %95'97ra iristen da.

Udal-administrazioetan, planaren ezarpena erabatekoa izan ez den arren, azpimarratu beharra dago, ordea, ezarpena orokorra izan dela bai biztanlegoari dagokionez, baita planean sartu diren udaletako langile publikoen kopuruari dagokionez ere. Beraz, planean sartu diren Udalak Autonomi Elkarteko Udaletako %79'92a badira ere, Udal hauen iharduera-eremuak Autonomi Elkarteko biztanleen %91'69a hartzen du (1.902.640 lagun) eta Autonomi Elkarteko Udaletako lanpostuen %95'97a.

6.- Hizkuntz eskakizunen egiaztatzeari dagokionez, planaren aurrakuspeneren betetze-maila %88'5era iristen da planean murgilduta dauden administrazioetan hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data ezarrita duten lanpostu guztiak kontuan hartuta. Planaren betetze-mailari buruzko atalean gaiari buruzko zehaztasun gehiago ematen dira.

Planak izan duen onarpenaren adierazgarria da era berean, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data ezarrita ez duten lanpostuetan ari direnak egiaztatu dituzten hizkuntz eskakizunen kopurua: 2.383.

Garrantzitsua da halaber, hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-datarik ezarrita ez duten eta euskalduntze- eta alfabetatze-ikas-

taroak egiten ari diren langileen kopurua.

7.- Hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data ezarrita duten eta hizkuntz eskakizun bat ere egiaztatu ez duten langileei dago-kienez, Hizkuntza Politikarako Sailordetza kasu hauen jarraipen es-tua eta horrelako egoeren azterketa sakona egiten ari da.

Ondoren aipatzen direnak Hizkuntza Politikarako Sailordetzak horre-lako langileak dituzten erakundeei bidalitako galdesortari emandako erantzunetatik ondorioztatzen diren arazoak dira:

- arazoak erakundearen ihardunean (lan asko, ez zen ordezkorik har-tu, plana berandu onartu zen, etab.)
- arazoak eskolaratze-prozesuan (ez da talderik osatu, beste herri ba-tera joan beharra, ikastaroetara gutxitan joatea, ikasketa-erritmoari eusteko zailtasunak, etab.)
- hizkuntzak ikasteko gaitasun-ezagatik edo OHOri dagokion ikaske-ta-maila ez izateagatik langilea salbuetsita uzteko asmoa.

Hau guztia aztertu ondoren, langile publikoen multzo honek trataera berezia izan beharko du, kasu guztiak ez baitira berdinak eta noski, irtenbideak egokituak izango dira.

8.- Euskararen erabilera berrmatzea. Lehenengo plangintzaldian langi-le publikoen euskalduntzean egin dira ahaleginik handienak, horre-gatik, langile publikoek dagozkien hizkuntz eskakizunak egiazta di-tzaten eman dira ahalegin horiek.

Hori guztia dela eta, inbertsiorik handiena euskalduntze- eta alfabe-tatze-prozesuetan baliabide ekonomiko nahiz pertsonalak ezartzen eman da, langile publikoak kalitate hobegoko zerbitzu bat eskaintze-ko gauza izan daitezen.

Datorren plangintzaldian herri-administrazioei **euskararen erabilera** areagotzea dagokie.

Langile publikoen gaitze-aldi honetan ezarritako helburuak lortu eta gero, aurrerantzean hartu beharreko neurriek dagokien hizkuntz es-kakizuna lortu duen langile publikoak bere lana euskaraz egiteko auke-ra izan dezan bideratuta joan behar dute.

9.-Asko izan dira lehenengo plangintzaldian zehar euskararen erabi-leraren normalkuntzarako azterketak egiteko asmoz, Hizkuntza Poli-

**«Derrigortasun-
indizeak planaren
betebeharrak une
historiko bakoitzari
eta Autonomi
Elkarteko aniztasun
soziolinguistikoari
egokitzea berrmatzen
du»**

**«Dekretu horrek
aurrikusten duen
aldibaterako
salbuespen-erregimenak
bidea eman du
lanpostuari dagokion
hizkuntz eskakizuna
egiaztatzen ahalegindu
diren langile publikoek
hizkuntz gaikuntza-
prozesuarekin jarrai
dezaten»**

tikarako Idazkaritza Nagusira zuzendu diren bai Autonomi Elkarteko Administrazioaren menpe bai toki-administrazioen menpe dauden Elkarte Publiko eta Zerbitzu Publikoak kudeatzen dituzten Erakundeak.

Komenigarria dirudi aipatutako erakundeetan euskararen erabilera-aren normalkuntzarako lanak areagotzea, lehentasuna emanez publikoari orokorrean zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakunde horiei, euskararen erabilera zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzera joz.